

Izen-ematea irailaren 1etik 16ra elektronikoki egin behar da www.irura.eus webguneko on-line tramiteak ataletik. Horretarako, sinadura elektronikoa beharrezkoa izango da, ez duenak BakQ-a eska dezake udaletxeko harreran (herritarrentzako identifikazio elektronikoa). Izen ematea egiteko edozein zailtasun izanez gero, herritarren beharretara egongo dira kultura bulegoko eta liburutegiko langileak, irailaren 1etik 16ra goizeko 9:00tik 14ra eta irailaren 12tik 16ra 17:00tik 19:00ra.

Eskaerak lekuak baino gehiago direnean interesatuen zerrendak osatuko dira eta matrikula eskubidea zozketa bidez erabakiko da. Ikastaro batean baina gehiagotan apuntatuta daudenak, aukeratutako ikastaroen artean bat lehenetsi beharko dute, zozketaren aurretik.

Behar izanez gero, zozketa irailaren 20an, 11:00etan udaletxean egingo da. Behin behineko zerrenda irailaren 21ean eta behin betiko zerrenda irailaren 26an argitaratuko da www.irura.eus webgunean.

Iruran erroldatutakoek lehentasun osoa izango dute.

Baja emateko azken eguna izena emateko azkeneko eguna izango da, osasun arrazoiengatik ez bada behintzat. Osasun arrazoiengatik bada, medikuaren ziurtagiria aurkeztea derrigorrezkoa izango da. Ikastaroak hasi ondoren, matrikulatu ahal izango da, taldea osatu bada, lekuak badaude eta irakasleak hala baloratzen badu, matrikula-tasa osoa ordainduz.

6 matrikula baino gutxiagoko taldeak bertan behera geldituko dira. Onartuko da 5eko taldea baldin eta ikastaro horretako talde guztien batz bestekoa 5ekoa bada. 4 edo gutxiagokoak ez dira batz bestekoa egiteko zenbatuko.

Taldeak osatze aldera, gutxieneko eskaera kopurua betetzen ez denean, talde desberdinak elkartzeko aukera aztertuko da.

Helduen ikastaroetan, Iruran erroldatutakoei %20ko hobaria aplikatuko zaie, hauekako kasuren bat badute: familia ugaria agiria, gazte txartela, langabeziako agiria, jubilatuta edo pentsiodun agiria. Kirol ikastaroetan trinketeko kirolguneko bazkideek %10eko deskontua izango dute. Haurren ikastaroetan eta Irura ez den beste herrietan erroldatutako helduen kasuetan beherapenik ez da aplikatuko.

Edozein hobari jaso ahal izateko ezinbestekoa da agiria aurkeztea (kultura@irura.eus-era fotokopia bidalita). Aurretik agiria udalean aurkeztu badute hori adierazten duen laukia bete behar da.

Desgaitasuna duten pertsonak: minusbaliotasun maila % 33 tik % 64rainoko tartekoa dutenei %20ko hobaria aplikatuko zaie eta minusbaliotasun maila % 65ekoa edo gehiagokoa dutenei, %50ekoa.

Deskontuak ez dira gainjartzen, deskonturik handiena aplikatuko da.

Dagokion adin-tartean eman behar da izena, irakasleak baloratuko du taldez aldatzea dagokion.

Izena ematen dutenei edo bere arduradunei Irurako Udaleko Appa deskargatzea gomendatzen zaie, ikastaroen inguruko informazio guztia bertan agertzen baita aldiro.


Izena ematen duenak arau guztiak eta ezartzen den protokoloa sinatu eta onartu beharko ditu. Hala egiten ez duenak ikastarotik kanporatua izango da.

Ikastaroak urriaren 10eko astean hasiko dira eta ekainaren 2koan bukatuko dira. Udalak ikastaroak hasitakoan ekingo dio matrikulatutakoei kobratzeari.

Udalak tarifatutako gaiei buruzko espezializazio ikastaroak antolatzeko ahalmena izango du. Ikastaro horien prezioa kostuaren arabera izango da. Era berean, bestelako ikastaroak antolatzea udalaren eskumena da. Horrelakoetan, dagozkien kostuen arabera prezioak finkatuko ditu udalak.

Kultur eta kirol IKASTAROAK

2022/10/10etik 2023/06/02ra arte



Izena emateko epea 09/01etik 09/16 arte.



Irurako udala

Garrantzitsua: izenemateko formularioa, bidali aurretik deskargatzea gomendatzen da, ziurtagiri modura erabili ahal izateko.

